

ESZEPTIZISMOAREN KONTRA

1.- Azkenik badut ordenagailua gertu nire ikerketetarako egiaren inguruan. Inportanteenak eginak ditudan arren sendotu eta ahal badut egiaztatu nahi ditut beste behin. Eta laguntza eskatu nahi diot Andre Mariari. Badugu salan paretari itsatsita dagoen malda batean, erdi erdian, dena presiditzen, estatua bat Andre Mariak ezkerreko besoan umea duena, eta eskuinekoarekin halako makilatxo bat erakusten duena, buruan ileen gainean koroa bat. Andre Maria mirarizalea da, zeren tituluak baititu Albako dukesak baino gehiago. Katolikook amatzat daukagu, eta hari nik dei egiten diot, arren, eska dezala nire kristau filosofiako lanen alde. Zeren behin baino gehiagotan estropezu egin baitut, eta goikoaren laguntzarik gabe ezin egingo nuke gauza handirik. Bakean nire lana eroaten ahal dut seguruago, eta aukeratu dudan gure pisuko gelatxo bateko bazterrean segurtatuta dut bakea, hara ez da inor joaten, emaztea ez bada, eta bakean ni fuertea naiz, sendoa, nire baitan bildua banengo bezala lo egiten dudaneko gisara, noiz inork ez nauen molestatzen.

2.- Donostia iaz izan zen Europako hiriburu kulturala, eta horren harira liburu bat bidali didate. Gu euskaraz espresatzen gara, hizkuntza ez hegemoniko batean, eta horrek badi-tu bere abantailak eta desabantailak. Hala nola, hizkuntza hegemonikoetan dena erranda omen dago, gure euskara maitean dena errateko omen dugu, oso tradizio eskasa eta

pobrea omen dugulako. Niri horrek gogora ekartzen dit behin Wagner diszipuluak Fausto maisuari erraten ziona. Sines-tezina omen zen zenbat aurreratu den alor guztietan. Bai, zeruraino... erantzun zion Fausto eszeptikoak. Eta egia errateko nik, gaur egunetara etorriz, ez dut ikasten inondik inora zientziek zerua ukitu dutenik ere. Betiko miserietan bizi dira humano gizajoak (gustatuko litzaidake nire izkribu honek argi pixka bat emango balie).Eta nola hizkuntza hegemonikoenak ere, ingelesa edo alemana, adibidez, ez dauden horren goi-goian, eta, beste aldetik, ez hegemonikook bizi garan hil arte, bada gertatzen ahal da ezen hizkuntza ez hegemoniko batean argitaratzea lanen bat hegemonikoak despistatu egiten dituen, goragokoa delako. Gezurra dirudien arren, orain arte ez ikusia. Goitik begiratzen digutenen ezusterako.

3.- Aspaldi hasi nintzen filosofiako karrera ikasten, urte hura ere ez dut oroitzen. Eta logika zen asignaturetako bat: introduccion a la logica formal, Alfredo Deaño. Maisua bere alorrean, maisua zen bezala nire profesore Fernando Mihura. Eta geroztik liburu hori izan da beti nire bulegoan, ordenagailuaren ondoan. Egun hauetan hartu ere dut eta errepasatu egin dut gainetik. Orri horietan ez zegoen nik ondorioztatua. Jende kuriosoen dibertimendurako idatzia zegoela zirudien. Logikak balio filosofikorik ez balu bezala. Hori iruditu zait. Eta gogoratu dut behin neska filosofiako estudiante batek erran zidana, soilik balio du, eta erabilgarria da, robotikarako.

Nire ikerketek ez naute eroan halako ondorioetaraino, ekarri naute nire filosofia eraikitza, eta ez zerotik hasia, eta bai filosofo grekoen, Socrates, Platon eta Aristoteles, inkisizioetatik oinarriturik nire erlazio ondorioak. Nik suposatzen dut irakurleak ezagutzen duela logika formala, eta horren barruan predikatuen logika. Profesoreak erran zidan, ukitu batzuekin, Aristotelesen silogistika bera dela. Beraz, jada lehen kurtsoetik,

Aristotelesen bidean barrena abiatua nintzen. Eta ez naiz desbideratu larregi ondo jorratua, konprobatua, dagoen bide horretatik.

Eta lehen momentutik ni fijatu nintzen batez ere kuantifikatzaile unibertsalean. Oso interes berezia jarri nuen haren sartzean, nola unibertsal bihur zitekeen. Eta murrizte bat ere, oso zorrotza, salbatu behar zen horretarako. Hala ere, beti gaudela logika formalean, baziren ariketak non kuantifikatzaile unibertsala sartzan ahal zen. Abstrakzio maila gorena gertatzen den matematiketan ere, eta fisikako legeak horretara, helburu horrekin, ondorioztatzen dira. Hala nola, eta famatuen aitatzearren, grabitazio unibertsalaren legea, Newtonek deskubritua eta ondorioztatua (gaizki unibertsal bihurtze bat nireztat). Eta matematikako geometrian oso famatua da edozein triangeluren kasua, unibertsal bihurtze perfektuaren adibide gisa filosofoak berak ere aipatua.

Baina abstrakzio mailak, gorena matematikan gertatzen da, alde batera lagaz, jotzen badugu, abstrakzioaren kontrako bidea hartuz, filosofia naturalera, non errealitatea ageri zaigun igarotzea bezala, ondorio orokorrak aldatu egiten dira. Ni, materialista naizen arren, lokatzezkoa, ez naiz materialista, ez dakusat materia guztiaren hastapena bezala, baina horrek ez dakar nik ez edukitzea neure filosofia materiala, neure filosofia naturala. Ez dena filosofia materialista eta bai filosofia materiala. Garbi dago nola oso diferentea den bide bat hartzea edo bestea.

Filosofia natural garbian edozein obserbazio unibertsal bihurtzerik ezinezkoa dela ondorioztatua dut nik. Eta hiru demostrazio ditut. Lehena da ohartzen garenean guztia aldakorra dela, variablea. Ezinezkoa da egia unibertsalik baieztatzea objektuak igarotze unibertsalean daudelarik. Igarotzea ere, estudiatu denean, holakoa edo halakoa dela teorizatu egin izan da, baina teoria horiek (Hegelena, Shopenhauerrena eta hola,

nabarmentzeko moduko batzuk aitatzearren) ezin daitezke unibertsal bihurtu. Eta beraz, gure ondoriorik sinpleena, hots, dena igarotzea dela, adjektiborik gabe laga behar dugu, egiari hur eman nahi badiogu behintzat.

Bigarren demostrazioa datorkigu ohartzen garenean nola objektuen definizioan beti dela litekeena definizio hobea-goko obserbazioak egitea, eta orduan unibertsal bihurtua faltsua ageri zaigu, egiazkoa izango da, agian, obserbazio lehenarekin soilik operatuta, baina aurrerakuntza ekarri duen obserbazio berria aintzat hartuta, definizio hobea dakar horrek, unibertsal bihurtua partikularizatu egiten du (partikularidade existentziala, egiazkoa, izaten ahal da, baina ez egia unibertsala), logika formaleko ariketa bat izaten ahal da, baina filosofia naturalean gaudela ondorioztatutako egia unibertsala ez da.

Hirugarren demostrazioa datorkigu zientziaren filosofiatik, eta nahiago bada, zientzietatik, beste barik. Zientifikoek ondorioztatua dute indukzio perfekturik ezinezkoa dela kosmos materialean. Unibertsal bihurtzea (kasu partikularretatik abiatuta, horrelakoa baita indukzioa) beraz ezinezkoa dela. Eta lege fisikoak eta lege zientzia guztietakoak deskubritzen dira eta formalizatzen ere dira, forma logiko matematikoa emanez lege horiei, baina unibertsal bihurtutako horiek, gero, frogatzean, ikasten ahal da beti nola ez diren unibertsal, hau da, indukzioa ez dela perfektua.

Indukzioa perfektua balitz orduan a priori asmatuko litza-teke legeak dioena, kalkuluak dioena, hala nola grabitazioaren legea, eta oso hurbiltze miresgarriak ere gertatzen dira, oso lege onak direlako, baina a priori ez dago asmatzerik kosmos material honetan. Indukzio perfekturik ez dago filosofia materialean.

Ingalaterrako filosofiaren historian enpirismoaren historia badago, eta amaitzen da eszeptizismoan, zeina absurdoan

erreduzitzen den. Ikasiz horrela faltsua dela bere ondorioetan, eta lehen eszeptizismoaren nabarmentzeko figura den Carneades akademikoari nik erranen nioke ezen hobeto ibiltzen dela begiak zabalik eta egunez ezen ez tapaturik. Ia putzu batean erori zen bere lagunengatik ez balitz. Materialismorik garbiena bezala ezagutu izan dut nik eszeptizismoa, eta nik, nire ondorio erlazioetarako, filosofia naturala, materiala, erabiltzen dut, ez naiz eta materialista. Eta Carneades izan bazen, ohartu gabe, eszeptizismoa absurdora erreduzitu zuena, horrekin batera nire baitara etortzen zait halako inposatzea formalismo aristotelikoarena. Gure sentiduetatik, batez ere nobleena den ikusmenetik, ikasten baitugu kosmos honen formaltasuna.

Gero ere hor dugu kristaua ez den filosofo famatu bat, Kant. Eskolastikaren ostekoa. Eta eskolastikarekin apurtu egiten duena. Haren filosofia, niretzat jakina, ondo ere ondo laburbiltzen da galdera bati erantzuten dionean ezezkoarekin. Ea posible diren juizio sintetikoak a priori. Jesusek egiten zituen signoak aintzat hartzen ez badira orduan ezinezkoa da humanoki. Lehen ere erran dugu nola ezinezkoa den filosofia materialetik abiatuta unibertsal bihurtzea. Beraz, Kantek aurrerapauso bat egiten du, galderaren formula-zio berria, nobedoso, baina galdera hori filosofian hor dago. Baina filosofiak, nik dakidala, beti ukatu egiten du “signoak” estudiatzea, arrazoiaren kontrakoak omen dira signoak. Baina nik diot, nola demontre jakin daiteke hori estudiatu aurretik?

Hori da eszeptikoez egiten dutena, soilik materiazkoa onartzen dute euren estudioetarako. Historian gertatzen ahal diren fenomeno naturaz gaindikoak ez dituzte aintzat hartzen. Baina hortik erlijio judu kristauan ondorioztatu diren unibertsalak ere, obra humanoak ei diren neurrian, faltsuak omen dira, eta kaltegarriak. Faltsua dena da ezen Jesusek egiten zituen signoak obra humano direla erratea. Garbi

daukat nik, eszeptikoen modura, ezin daitekeela unibertsal bihurtzerik filosofia naturalean gaudela. Baina, haien kontra, horregatik ez dut ukatzen zientziaren posibilitatea, bistan dagoen fenomenoa baita, eta baita ere nik Kantek egiten duen galderari, ea posible diren juizio sintetikoak a priori, Jesusek egiten zituen signoak aintzat hartuz, halako galderari erantzuten diot badirela posible, baina Jesusen baitan bakarrik. Eta Jesus jartzen dut guziaren Jaun. Eta honetan ez naiz eszeptikoa, eta bai fededuna, eta nire filosofia jorratzen iritsia naiz ondorio horretara. Eta katolikoa naiz ondorio guztiekin. Eta ez dut uste, eszeptizismoari ukitzen pasatzen banaiz ere, ez dut uste horrekin lotuko nautenik. Nik materiaren ezintasuna ikertzen dut bere burua unibertsalki, behin betiko, ezagutzeko. Eta irtenbide bakarra, niretzat, Jesus da, eta Haren errukia nirekiko.

Roman Garmendia